

LABek ez du bat egin Segregazio Mahaian aurkeztutako behin-betiko diagnostikoarekin eta hala adierazi du mahaian zein kanpoan mobilizatuz

Proposamen argia jarri du LABek mahai gainean: hezkuntzan dauden mahai negoziatzaileetan ere segregazioari loturiko diagnostiko eta neurriak lantzea, bertan langileon ordezkarien gehiengoz adostuak eta onartuak izan daitezzen.

Segregazio Mahaiaaren bigarren bilera burutu da gaur Gasteizeko Salburua BHI ikastetxean. Bertan eskola-segregazioaren inguruko diagnostikoaren behin-betiko dokumentua aurkeztu da eragileok egin genituen ekarpenak Hezkuntza Sailak aztertu, eta egoki iruditu zaizkionak aintzat hartzea erabaki ondoren.

Diagnostikoak Hezkuntza Sailak orain arte hartu dituen neurri eskasak -Arartekoak Ordiziaren kasu konkretuan halaxe baieztatuak- balioan jartzen dituen arren, gaurko bileran Begoña Pedrosa Sailburuak berak onartu egin du ezarri diren neurriak ez direla nahikoak. LABetik adierazi dugu nahikoak ez izatearekin batera, kasu batzuetan eskola-segregazioa ahalbidetu eta sakondu egiten duten hezkuntza politikak bultzatu direla eta horren adibide dira orain bi aste ohiko matrikulaziotik kanpo Gasteizen Kristau Eskola jakin batzuetan zaurgarritasun egoeran dauden familiei eskaturiko kuotak.

Horregatik, LABek uste du eta ekarpenetan horrela adierazi du, diagnostikoan aintzat hartu ez diren elementu gehigarri batzuk jaso behar dituela:

- Eskola segregazioaren arrazioen artean sistemaren antolaketa dualaz ari denean, legez debekaturik dauden kuoten kobrantzaren errealitatea jaso behar da. Kuota horien auditoretza egiteaz gainera, Hezkuntza Sailak dituen datuak eragileokin partekatu behar ditu eta kuotak debekatzeko planifikazioa egin.
- Ikaspostuen gain-eskaintza egoeraren aurrean bestelako eskola planifikazio bat behar dela jaso behar da, era orokortuan D ereduak sare publikoa erdigunean jarriko duena eta modu deszentralizatuan tokian toki erabakiak hartzea ahalbidetuko duena. Diagnostikoak ez du esaten zenbat esku hartze egin diren tokiko administrazio eta Hezkuntza Sailaren artean.
- Sare publikoa sistemaren ardatza izateko, bere aldeko desoreka positiboa egin beharra jaso behar du diagnostikoak eta hori planifikatu behar dela. Era berean, LABek arbuiatu du itunpeko ikastetxeen artean patronalek ezin dutela gaur gaurkoz haien birdimentsionamendua helburu gisa ezarri (Kristau Eskolak ikasturte hasierako ekitaldian esan zuen bezalaxe).
- Hizkuntzagatik gertatzen den segregazioa jaso behar du diagnostikoak, izan ere, hezkuntza legeak jaso duen arren Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzean ikasleek euskaraz B2 maila eskuratu behar dutela, gaur gaurkoz eta hizkuntza ereduak mantentzen diren bitartean hori ez da horrela. Funts publikoak lortzeko betekizun izan behar badu ere, diagnostikoak ez du jaso zenbat ikasle ez diren iristen euskarazko B2 mailara.

Hori horrela, LABek argi adierazi du lehenik bilera baino lehen burutu duen mobilizazioan, eta ondoren mahaian bertan, eskola-segregazioari aurre egiteko bestelako hezkuntza politika batzuk behar direla. Gainera, eskola-segregazioari aurre egiteko printzipio gisa gizarte kohesioa kokatu du, hezkuntza politiketan eta hezkuntza sistemaren planifikazioan erabakigarria izan behar da familien ikastetxea erabakitzeko eskubidearen gainetik.

Diagnostikoaren edukiez gain, LABek berriro ere salatu egiten du adostasunak irudikatu nahi dituen beste mahai baten aurrean gaudela, Osasun Mahaiarekin bezala itxurakeriaz josia dagoena. Metodologia zehatza zein den ez da argitu nahi izan eta bilera zehazki zertarako zen ez da argitu, eragileok tarte labur batez hitz egiteko bai, gehiengoak eta adostasunak eraikitzeke, berriz, ez. Bileran zehar jakin dugu gaurkoan ez zela diagnostikoa bozkatuko eta aldiberean ezagutu dugu dokumentua itxi nahi zela. Hezkuntza Sailak horren inguruan hitz egin nahi ez duen arren, mahaian eragile asko izan gara metodologiaren inguruko kritika plazaratu dugunak.

Gauzak horrela, LABek diagnostikoarekin bat egiten ez duela argi utzi nahi du eta mahairen bere parte hartzearen inguruan hausnartuko duela adierazten du. Izan ere, mahaian proposamen zehatza egin du segregazioari loturiko diagnostiko zein neurriak hezkuntzako mahai negoziatzaileetan depositatu beharko liratekeela adieraziz, hezkuntza sistemako langileon ordezkartzaren gehiengoekin adostu behar direla iritzita. Eta Hezkuntza Sailak ezezko borobila erantzun du, argi adieraziz segregazio mahaia dela horretarako foro bakarra. Araurik gabe, nahieran eta bere interesen arabera moldatzen duen foroa, alegia.

LAB no comparte el diagnóstico definitivo presentado en la Mesa de Segregación y así lo manifiesta tanto en la mesa como fuera movilizándose

LAB ha puesto sobre la mesa una propuesta clara: que en las mesas negociadoras de educación también se trabajen el diagnóstico y las medidas relacionadas con la segregación, para que sean consensuadas y aprobadas por la mayoría de la representación de los trabajadores.

Hoy se ha celebrado la segunda reunión de la Mesa de Segregación en el IES Salburua de Gasteiz. En la misma se ha presentado el documento definitivo del diagnóstico sobre la segregación escolar, después de que el Departamento de Educación después de analizar las aportaciones de los diferentes agentes ha incluido en el documento las aportaciones que a considerado oportunas.

A pesar de que el diagnóstico pone en valor las escasas medidas adoptadas hasta ahora por el Departamento de Educación, confirmadas así por el Ararteko en el caso concreto de Ordizia, en la reunión de hoy la propia Consejera Begoña Pedrosa ha reconocido que esas medidas implantadas son insuficientes. Desde LAB hemos señalado que a parte de que sean insuficientes, en algunos casos se han impulsado políticas educativas que posibilitan y profundizan en la segregación escolar, y ejemplo de ello son las cuotas solicitadas en determinados centros de Kristau Eskolak hace dos semanas fuera de la matriculación ordinaria en Vitoria-Gasteiz a las familias que se encuentran en situación de vulnerabilidad.

Por ello, LAB considera y así lo ha indicado en las aportaciones realizadas, que el diagnóstico debe incluir algunos elementos adicionales que no se han tenido en cuenta:

- Cuando trata entre los motivos de la segregación escolar sobre la organización del sistema dual, debe recogerse la realidad del cobro de las cuotas legalmente prohibidas. Además de realizar la auditoría de estas cuotas, el Departamento de Educación debe compartir con los agentes los datos de que dispone y planificar la prohibición de las cuotas.
- El diagnóstico debe recoger la necesidad de una nueva planificación escolar ante la situación de sobreoferta de plazas, que de forma generalizada ponga en el centro la red pública de modelo D y permita la toma de decisiones locales de forma descentralizada. El diagnóstico no indica el número de intervenciones realizadas entre la administración local y el Departamento de Educación.
- El diagnóstico debe recoger que se debe realizar un desequilibrio positivo a favor de la red pública como eje vertebrador del sistema educativo y la necesidad de planificarlo. Asimismo, LAB ha rechazado que, entre los centros concertados, las patronales no puedan fijar como objetivo su redimensionamiento (tal y como dijo Kristau Eskola en el acto de inicio de curso).
- El diagnóstico debe recoger la segregación que se produce por razón de la lengua, ya que aunque la ley de educación ha recogido que al finalizar la Educación Secundaria Obligatoria el alumnado debe alcanzar el nivel B2 en euskera, hoy en día y mientras se mantengan los modelos lingüísticos eso no es así. A pesar de que debería ser requisito para obtener fondos públicos, el diagnóstico no ha incluido el número de alumnos que no llegan al nivel B2 en euskera.

Por tanto, LAB ha dejado claro primero en la movilización que ha llevado a cabo antes de la reunión, y después en la propia mesa, que para hacer frente a la segregación escolar se necesitan otras políticas educativas. Además, ha situado la cohesión social como principio base para combatir la segregación escolar. En opinión de LAB la cohesión social debe ser determinante en las políticas educativas y en la planificación del sistema educativo por encima del derecho a decidir el centro de las familias.

Además de los contenidos del diagnóstico, LAB vuelve a denunciar que «estamos ante otra mesa que quiere escenificar consensos, que como con la Mesa de Salud está llena de apariencias». No se ha querido aclarar cuál era la metodología concreta de la reunión ni para qué era exactamente. Para que los agentes habláramos brevemente, sí; pero para construir mayorías y consensos, no. Durante la reunión hemos sabido que en la reunión de hoy no se iba a votar el diagnóstico y al mismo tiempo hemos conocido que se cerraba el documento. Aunque el Departamento de Educación no quiere hablar al respecto, en la mesa hemos sido muchos los agentes que hemos hecho la crítica en torno a la metodología.

Así las cosas, LAB quiere dejar claro que no comparte el diagnóstico y que reflexionará sobre su participación en la mesa. De hecho, en la mesa ha hecho una propuesta concreta indicando que el diagnóstico y las medidas relacionadas con la segregación deberían depositarse en las mesas de negociación de educación, al entender que deben ser consensuados con la mayoría de la representación de los y las trabajadoras del sistema educativo. El Departamento de Educación ha respondido con un no rotundo, alegando que el único foro es el de la mesa de segregación. Un foro que no tiene reglas, y que lo amolda a la carta y según sus intereses.